

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

*Hezkuntza ez arautuaren arloan neska-mutil gazteei ekintza formatzaileak gauzatzeko udal bekak emateko 2019 urterako deialdia.*

Azpeitiko Udalak 2017ko otsailaren 7an egindako bilkuran hezkuntza ez arautuaren arloan neska-mutil gazteei ekintza formatzaileak gauzatzeko udal bekak emateko oinarri bereziak onartu zituen. (2017ko apirilaren 27ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 80 zk.).

Oinarri berezi horietan araututa daude: helburua, pertsona onuradunak, alde batera uzteak, diruz laguntzeko gastuak eta diru-laguntzak emateko prozedura.

Aipaturiko oinarriek adierazten dute deialdiak ezarriko dutela aurrekontuko zein kreditu zehatzen kontura finantzatzeko diren diru-laguntzak.

Era berean, adierazten da eskaerak aurkezteko epea, deialdian ezarriko dela.

Aipaturiko laguntzak Azpeitiko Udaltzatzen 2017ko otsailaren 7an egindako bilkuran onartu zuen 2016-2019 Diru laguntzen Plan Estrategikoan jasota daude (1. lerro estrategikoa: gizarte ekintza).

Araudi honen baitan, Azpeitiko Alkateak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.f artikuluko emandako eskumenaz baliatuz, 2019ko apirilaren 9ko Ebazpenaren bidez

ERABAKI DU

*Lehen.* 2018. ekitaldiko diru laguntzen deialdia egitea, hezkuntza ez arautuaren arloan neska-mutil gazteei ekintza formatzaileak gauzatzeko udal bekak emateko.

Deialdi hori Ebazpen honen eranskin gisa jaso da.

Deialdia eta laguntza eskatzeko beharrezkoak diren gainontzeko dokumentuak Udalaren web orrian daude erakusgai, diru-laguntzak atalean. [www.azpeitia.eus](http://www.azpeitia.eus).

*Bigarrena.* Deialdi horri aurre egiteko 2019. ekitaldiko udal aurrekontuan 40.000 euroko gastua baimentzea, Udalaren Zerbitzu Orokorrak kudeatzen dituen programen kontura, aurrekontu xedapen honekin:

1.100.481.326.00.01 2019.

Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, oinarri hauek argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Convocatoria 2019 para la concesión de becas municipales dirigidas a que los niños y niñas jóvenes realicen acciones formativas en el ámbito de la enseñanza no reglada.*

El Ayuntamiento de Azpeitia aprobó con fecha 7 de febrero de 2017 las bases específicas para la concesión de becas municipales dirigidas a que los niños y niñas jóvenes realicen acciones formativas en el ámbito de la enseñanza no reglada (Boletín Oficial de Gipuzkoa de 27 de abril de 2017 n.º 80).

El objeto, los sujetos beneficiarios, las exclusiones, los gastos subvencionables y el procedimiento de concesión de subvenciones está regulado en dichas bases específicas.

Las mencionadas bases establecen que la convocatoria recogerá los créditos presupuestarios concretos con cargo a los cuales serán financiadas las ayudas.

Asimismo, se indica que el plazo de presentación de solicitudes se señalará en la convocatoria.

Dichas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2016-2019 aprobado por el Ayuntamiento Pleno en sesión de 7 de febrero de 2017 (línea estratégica 1: acción social).

En virtud de esta normativa, el Alcalde de Azpeitia, en el ejercicio de las competencias conferidas en el art. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local (LRBRL), por Decreto de fecha 9 de abril de 2019,

HA RESUELTO

*Primero.* Efectuar la convocatoria anual para el otorgamiento de las becas dirigidas a que los niños y niñas jóvenes realicen acciones formativas en el ámbito de la enseñanza no reglada.

Dicha convocatoria se adjunta como anexo a la presente Resolución.

La convocatoria y demás documentos necesarios para la solicitud de la ayuda se encuentran disponibles en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia, en el apartado de ayudas y subvenciones [www.azpeitia.eus](http://www.azpeitia.eus).

*Segundo.* Autorizar un gasto de 40.000 euros en el presupuesto municipal 2019 con arreglo a la siguiente imputación presupuestaria con cargo a los programas gestionados por el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Azpeitia:

1.100.481.326.00.01 2019.

Contra la presente resolución, que es definitiva y pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo. Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente a la publicación de las presentes bases.

ERANSKINA

*Hezkuntza ez arautuaren arloan neska-mutil gazteei ekintza formatzaileak gauzatzeko udal beka emateko 2019 urterako deialdia. Oinarriak Azeptitiko Udaltzatzen 2017ko otsailaren 7an egindako bilkuran onartu zituen. Eta behin betikoan 2017ko apirilaren 27an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, argitaratu ziren 80. zk.an.*

1. Xedea eta lagungarria den epealdia.

Laguntza hauen xedea da Azeptitiko udalerrian bizi diren neska-mutil gazteek hezkuntza ez arautuko arloan ekintza formatzaileak gauzatzeko aukera izan dezaten.

Zehatz esanda, udal-beka hauen helburua azpeitiar neska-mutil gazteen (3-18 bitartekoak) gizarte integrazioa eta autonomia ahalbideratzea eta beren arteko berdintasuna bermatzea, hezkuntza ez arautuko zenbait gune hezitzaileetan parte hartzea erraztuz.

Diru laguntza hauen bidez adierazitako hezkuntza jarduerak burutzeko sortutako gastuak partzialki estaliko dira.

2. Formakuntza jardueraren hasierako eta amaierako epeak.

Diruz lagungarria izango diren epealdiak:

– Ekaina-abendua 2018.

– Urtarrila-abendua 2019.

Diruz lagungarriak izango dira, hezkuntza ez arautuaren arloan neska-mutilentzako ekintza formatzaileen inguruko gastuak, 2018ko ekainaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitarteko epealdikoak.

3. Diru laguntzaren ordainketa.

2019ko deialdiari aurre egiteko onartu den kopurua 40.000 eurokoa da.

Aurrekontuan jarria dagoen diru-kopurua ez balitz nahikoa izango eskari guztiak laguntzeko, kontzeptu horietarako ezarriak dauden diru-zenbatekoetan murrizketa egingo da baremoaren arabera.

Edozein Kopuru gehigarria gauzatu ahal izateko baldintza izango da udal-beka ematea ebatzi aurreko uneren batean hartarako kreditua erabilgarri badagoela aitortzea.

4. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak egiteko epea.

Diru laguntza eskaerarekin batera atxikitu behar den dokumentazioa oinarrien laugarren artikuluan jasotakoa izango da.

Diru laguntza eskaera Udalaren erregistro orokorrean eta bere web orrian argitaratu den modela erabiliz egin beharko da.

Eskaerarekin batera, zerrendatutako honako agiriak aurkeztu beharko dira.

1. Eskatzailearen NA/AIZ/Pasaportea.

2. Gaztea inskribatu den formakuntza jardueraren matriculazioari eta hileko gastuei dagokion dokumentazioa.

3. Hala balegokio, matricula ordaindu dela egiaztatzen duen ordainagiria.

4. Zinpeko adierazpena, beste diru-sarrera batzuk badauden eta/edo beste erakunde batzuetan diru-laguntza eskatu duen adierazten duena, eskaera orrian jasotako eredu erabiliz.

5. Onuradun izateko inolako baztertze-arrazoitan sartuta ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena, eskaera orrian jasotako eredu erabiliz.

ANEXO

*Convocatoria 2019 para la concesión de becas municipales dirigidas a que los niños y niñas jóvenes realicen acciones formativas en el ámbito de la enseñanza no reglada, de conformidad con las bases aprobadas mediante acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 7 de febrero de 2017 y publicadas definitivamente en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa del 27 de abril de 2017 en el n.º 80.*

1. Objeto y periodo subvencionable.

El objetivo de estas ayudas es posibilitar que los niños y niñas jóvenes que viven en Azpeitia puedan realizar acciones formativas en el ámbito de la enseñanza no reglada.

En concreto, la finalidad de este sistema de becas es posibilitar la integración social y la autonomía de los niños y niñas jóvenes (entre 3-18 años) garantizando la igualdad entre ellos, facilitando la participación en los ámbitos formativos de la educación no reglada.

Las ayudas que se establezcan están destinadas a cubrir parcialmente el gasto ocasionado por la realización de dichas acciones formativas.

2. Plazo de inicio y fin de las actuaciones formativas.

Los periodos subvencionables serán:

– Junio-diciembre del año 2018.

– Enero-diciembre del año 2019.

Serán subvencionables los gastos relativos a las acciones formativas en el ámbito de la enseñanza no reglada realizados por los niños y niñas, desde el 1 de junio del 2018 hasta el 31 de diciembre del 2019.

3. Abono de la subvención.

La cantidad autorizada de 40.000 € para hacer frente a la convocatoria del año 2019.

Si la dotación presupuestaría no alcanzara a cubrir el total de las solicitudes, según el baremo se aplicará una minoración en las cuantías económicas establecidas para los conceptos.

La efectividad de cualquier cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

4. Documentación y plazo para la presentación de las solicitudes.

La documentación que deberá acompañarse a la solicitud de subvención será la indicada en la base cuarta de las Bases:

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se encuentra disponible en el registro general y página web del Ayuntamiento.

Junto a la solicitud, deberá presentarse:

1. DNI/NIE/Pasaporte del solicitante y/o representante.

2. Documentación relativa a la matrícula y coste mensual de la acción formativa en la que se haya inscrito el joven.

3. En su caso, documentación acreditativa del pago de dicha matrícula.

4. Declaración jurada en el que se haga constar, en su caso, la existencia de otros ingresos y/o solicitudes de subvención realizada ante otras Instituciones, según modelo recogido en la solicitud.

5. Declaración responsable de no incurrir en ninguna de las condiciones excluyentes para ser beneficiario, según modelo recogido en la solicitud.

6. Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna jurtzen duen agiria.

Azpeitiko Udalak zuzenean eskatuko ditu edozein Erakunde edo Administrazio Publiko laguntza hauen oinarritan azaltzen diren 4. artikulutako dokumentuak, eskaeraren kudeaketarako baldintza guztiak betetzen direla kreditatu, egiaztatu eta datuok eguneratu ditzen.

– Eskariak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren biharamonetik hasiko da zenbatzen.

Edonola ere, eskariak aurkezteko epea 2019ko abenduaren 10an amaituko da.

5. *Egiaztatze agiriak eta aurkezteko epea.*

Deialdiaren ebazpena 2019ko abenduaren 31 baino lehen egingo da.

– Organo eskudunak:

Instrukzioa eta proposamena: «Gizartekintzako Batzorde Informatzailea» batzordeak.

Ebazpena: Alkatetzak.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesatuei, Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 41.1 artikuluan arabera; betiere emandako diru laguntzak Udalaren webgunean argitaratzea baztertu gabe.

Diru-laguntzaren ordainketa, gastua egin izanaren egiaztatze agiri guztiak 2019ko abenduaren 20a baino lehen aurkezteari baldintzatuta egongo dira.

Aurkeztu beharreko egiaztatze-agiriak oinarri orokorren 13. artikuluan zerrendatutako agiriak izango dira.

6. *Araudi aplikagarria.*

Bere oinarri arautzaileetan ezarrikoaz gain, laguntza hauek Azpeitiko Udalaren diru laguntzak arautzen duen udal-agintarauak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2012ko maiatzaren 29an argitaratua) eta Diru laguntzen araudi orokorra arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautuko dituzte.

7. *Datu partsonalen babesa.*

Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Azpeitiko Udalaren (Plaza Nagusia 5, Azpeitia) ardurapeko datu tratamendu batean sartuko direla. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko, aurkaratzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, helbide horretara idatzi bat bidaliz.

Zure datu pertsonalak tratatzeko helburua da diru-laguntzen deialdia kudeatzea eta ebaztea, deialdiak duen interes publikoan eta parte hartzeko egin duzun eskaeran oinarrituta.

Eskatzaileen datuak jakinarazi ahal izango zaizkie zerga administrazioari eta fiskalizazio organoei kontabilitate kontrola egiteko, eta banketxei, ordainketak kudeatzeko. Era berean, beste hirugarren batzuei jakinaraziko zaizkie, lege mailako araudian jasotzen diren kasuetan.

Datuak gordeko dira diru-laguntza emateko prozeduraren tramitazioak eta sor daitezkeen erreklamazioen tramitazioak irauten duen bitartean.

Zure datu pertsonalen tratamenduari eta zure eskubideen erabilerari dagokienez, harremanetan jar zaitezke helbide honetan: [olatz@azpeitia.eus](mailto:olatz@azpeitia.eus).

Azpeitia, 2019ko apirilaren 9a.—Eneko Etxeberria Bereziartua, alkatea. (2378)

6. Documento que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre.

El Ayuntamiento de Azpeitia requerirá a cualquier entidad o administración pública los documentos especificados en el artículo 4 de las Bases de estas ayudas, al objeto de acreditar y verificar en la gestión de la solicitud al cumplimiento de todos los requisitos y actualizar estos datos.

– Plazo de presentación de solicitudes:

Las solicitudes podrán presentarse desde el día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

En todo caso, el plazo de presentación de las solicitudes finalizará el 10 de diciembre de 2019.

5. *Documentación justificativa y plazo para su presentación.*

La resolución de la convocatoria se realizará con anterioridad al 31 de diciembre de 2019.

– Órganos competentes:

Instrucción y propuesta: la Comisión informativa Servicios Sociales.

Resolución: Alcaldía.

La resolución del procedimiento se notificará individualmente a las personas o entidades interesadas de conformidad con lo previsto en el artículo 41.1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Todo ello, sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web del Ayuntamiento.

El abono de la subvención estará condicionada a la presentación de los documentos justificativos de haber realizado el gasto antes del 20 de diciembre de 2019.

La documentación justificativa será la que se relaciona en la base 13 de las bases generales.

6. *Normativa aplicable.*

Además de por lo dispuesto en sus bases reguladoras, estas ayudas se regirán por la Ordenanza municipal de subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 29 de mayo de 2012) y por la Ley 38/3003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

7. *Protección de datos de carácter personal.*

Se informa que sus datos personales serán incluidos en un tratamiento de datos cuyo responsable es el Ayuntamiento de Azpeitia (Plaza Nagusia 5, Azpeitia) y ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido a la misma.

Sus datos personales serán tratados con la finalidad de gestión y resolución de la convocatoria de subvenciones, basado en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella.

Los datos relativos a las personas solicitantes podrían ser comunicados a la administración tributaria, a órganos de fiscalización, para el control contable y a entidades bancarias para gestionar los abonos. Igualmente, se comunicarán a otros terceros en supuestos contemplados en normas de rango de ley.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede ponerse en contacto en esta dirección: [olatz@azpeitia.eus](mailto:olatz@azpeitia.eus).

Azpeitia, a 9 de abril de 2019.—El alcalde, Eneko Etxeberria Bereziartua. (2378)